



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

XUXURLATZEAREN EDERRA

Rebeca Limon -Tessi- mexikarra da, 15 urte ditu eta kantu inprobisatzailea da. Maddalen Arzallus euskal herritarra da, 25 urte ditu eta bertsolaria da. "Europa bat-batean" kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketetan elkartu dira, hizketarako, hausnarketarako, partekatzeko eta elkarrengandik ikasteko. Eta, baita, elkarri xuxurlatzeko ere. Asteon Tabakaleran izandako saioan Maddalen Tessiren xuxurlatzailea izan da, parean zituen bertsolariek euskaraz abesten ziotena itzultzen baitzion, suabe-suabe, belarrira. Irudia ederra da, Tessiren begie-

tan igartzen baita oso barrura daramala Maddalenen azalpe-na, segidan oso bere barrutik ateratzeko berak emango duen erantzuna. Eta hor magia berezia sortzen da, parean dagoen entzuleak gustura entzungo bailuke zer xuxurlatzen dion, baina berdin gustura dago xuxurlatzen diona imajinatzen.

Inprobisazioaren edertasunaren parte bat horixe baita, ahots goraz kantatzen duenetik harago, inprobisatzailearen baitan piztu diren xuxurlak eta murmurak imajinatzea.

amagoia.mujika@gaur8.info